

IGANDEKO
SOLASAK

Fernando BUESA

Arabako ahaldun nagusi izan ondoren Eusko Jaurlaritzan Hezkuntza sailburu eta lehendakariordea da. Legebiltzarrean egin diren eztabaida ugarietan beti erakutsi du politika egiteko halako modu zorrotz bat, eta jeltokideen lanari jarraipen gertuko egiteaz gain kritika egiten ere zalea da. Beste izar sozialista batzuk itzali samar direnean, Fernando Buesa lehendakariordea indar betean ageri da.

«Guggenheim ekartzeko erak pikutara eramango du»

PELLO ZUBIRIA / GASTEIZ

EGUNKARIA.— Elkarrekin haserre zabiltzate Eusko Jaurlaritzako sozioak. Ezkontideen ohizko liskarrak baino zerbait gogorragoa ere badi-rudi batzuetan.


FERNANDO BUESA.— Gobernu barruan eztabaidarik izan dugu, normala denez eta proiektu bat baino gehiagoren aurrean jarrera ezberdinetan egon gara, baina ezin da esan gatazka hedatu baten aurrean gaudenik. Gobernu guztietan, eta baita monokolorreetan ere, arazoan aurrean jokabide ezberdinak egotera ohitu behar du jendeak. Eztabaida ez da haserre, erabakiak zuhur hartzeko modua da. Gobernu berri honek zerbait ekarri badu bakea da hain zuzen, bakea gobernu barruan eta bakea euskal gizartean. Hainbesteko istiluak izan zituzten aurreko gobernuan, ezen azkenean koalizioa hautsi bait zuten. Orain alderantzizko egoeran gaude.

EGUNKARIA.— Xabier Atutxak berindustrializazioa dela eta Madril-eko Gobernuaz esan dituenak, Redondo Terrerosen erasoak jeltokideei, hauen arrapostua...

BUESA.— Ez ditugu nahasi behar Jaurlaritzan barruko harremanak eta alderdi politikoen artekoak. Partiduek beste zeregina daukate, beren nortasun eta iritziak adierazi behar dituzte, eta normala da horien arteko eztabaida.

EGUNKARIA.— Guggenheim museoaz, kultur munduan sortu den polemikaz gain, Jaurlaritzan barruan ere ados ez zaudetela dirudi.

BUESA.— Guggenheim fundazioa bezalako gauza garrantzitsua Euskadira ekartzea ideia ona izan daiteke, baina ideiarik onenak pikutara joan daitezke oinarri okerren gainean martxan jartzen hasiz gero. Hasteko, neurritz gaineko inbertsioak egin beharko dira, eta azkenean baliteke gobernaezinezko museo erraldoia edukitzea. Gero, erabaki guztiak fundazioari berari uzten zaizkio, denak, eta Bilbon kultur proiektu



Bortxakeriaren estrategia bakarrean ados daude sozialista guztiak, Buesaren ustez.

OIALDE

iparramerikar bat edukiko dugu, ez euskal proiektu bat. Egingo diren inbertsioen truke hemengo kontrol handiagoa eskatu behar zen. Guggenheimerako egin den komenioa nahiko iluna da, inbertsioaren kontrolaz eta beste. Eta proiektua pikutara joateko arriskua dago.

EGUNKARIA.— Industria alorrean basamortu bat izatera kondenaturik al gaude?

BUESA.— Inola ere ez, Euskadik bere pultsu industrial berreskuratu behar du, jakinik gure ehun industrial birmoldatu behar dugula. Gure industria ezin da etengabe oinarritu siderurgian, untzigintzan, metalen transformazioan, horien oinarri garrantzizko bat atxiki beharko dugu baina XXI mendean konpetitiboak izan daitezkeen heinean. Eta balio erantsi handiagoko ataletara bideratu behar dugu.

Baina inbertsioak behar dira, eta

«Guk dugun interesaz gain, Espainiak ezin du galdu bere Iparraldeko industria eta horren barruan euskal industria».

honetan ez Eusko Jaurlaritzan eta ez Madril-eko Gobernuaz esan dituenak, Redondo Terrerosen erasoak jeltokideei, hauen arrapostua...

ni behar ditugu. Horretarako lehen oztipoa terrorismoa da, eta hori gainditzea da lehentasunetako bat. Hori konponduta, Espainiako beste eskualde askok baino posibilitate gehiago ditugu inbertsioak erakartzeko. Espainiako industria funtsean Norteko industria da, eta horren muinean euskal industria, eta guk dugun interesaz gain Espainiak ezin du galdu bere Iparraldeko industria.

EGUNKARIA.— Kupoaz ez ordaintzeko posibilitate behin eta berriro salatu den arazo baten inguruan piztu da, Madril-eko hemen agindutako inbertsioak ez egiteagatik, alegia.

BUESA.— Kupoan ordaintzen duguna baino askoz gehiago gastatzen du gobernuak industriaren arazoak konpontzen, eta egoismoagatik bakarrik izanda ere ezingo genuke horrelako biderik onartu. Horretaz landa, bada baztertu behar dugun ideia bat: industriaren arazo guztiak Es-

tatuak dirua ipinita konponduko direla, alegia. Ezin dugu pentsatu gauzak konpondu daitezkeenik arrisku batzuk beregain hartuta ekingo duten enpresaririk gabe. Eta enpresari-ekin egonkortasunean oinarritu behar dugu gure etorkizun politikoa ere, zenbait eztabaida burugabe baztertu. Duela gutxi independentziaz ikusi duguna adibidez, kanpotik ekarritako eztabaida eta alferrikakoa gainera, inork epe laburrean horri heltzeko asmorik ez bait du.

EGUNKARIA.— Eta zer gertatzen da azpiegitura eremuan hartutako konpromezuekin?

BUESA.— Inbertsio guzti horiek martxan daude, beren epeetan eta aurretik behar dituzten lanak kontutan hartuta. Portuak, aireportuak eta ferrokarrila aipatzen dira. Portuetan lanak hasiak dira, Bilbokoan adibidez. Aireportuetan gauza bera. Eta trenbidean, 1992 osoa eramango digu proiektua zehazteak. Zenbait biktimismoa egitea komeni zaio, baina egia beste bat da.

Lan horien martxak, gainera, administrazioak dituen baliabideen eritimoa egokitu behar zaizkie. 92an, adibidez, gure laguntzak krisian dauden industrietara bideratu beharko ditugu eta behar bada gure inbertsio programak ere atzeratu egin beharko dira. Baina horrek ez du esan nahi inbertsioak ahaztu ditugunik. Eta hori ari da gertatzen Espainian ere. Hortik ondorio alarmistak ateratzea, propio egindako joko bat da.

EGUNKARIA.— Biolentzia politikoa aipatu duzun, azkenaldi honetan sozialisten artean joera edo apreziazio ezberdinak nabaritzen dira.

BUESA.— Ez, ez, sozialista guztiok estrategia politiko berean gaude. Behar bada hobeto esplikatuko beharko dugu gure estrategia. Segurantzia batetik abiatzen gara: arazoak konpondu daitezkeen ETA eta HBko mundu horretan mugimenduren bat gertatu behar duela. Beraz, ETAn eta

tantoa

Kixotearen tankera, Santxoren jarrera

Nerea Azurmendi

Fernando Buesa Arabako ahaldun nagusi ohiak Eusko Jaurlaritzara iritsi eta —gainerantzeko «arazo sozialen» artean— hezkuntzaren ardura eskuratu zuenean, ez zituen errota erraldoiekin nahastu. Cervantesek berak bidali izan balu bezala adierazi zuen, horretarako parada izan bezain laster, berreskalduntzea birplanteatu egin behar zela, euskararen indarberritzearen abiadura

gehiegizkoak behar zuela zuzenketarik. Argi eta garbi. Orain, ikastolei beren egoera egokitze epe mugatua dutela adierazten die, errotekin erraldoiekin baino askoz ere praktikoagoa izan behar da eta. Mezu garden eta zuzena.

Bizitza partikularerako gorde bide ditu Fernando Buesa sozialistak disimulok eta imajinazio gehiegikeriak, politikagintzan marmol gogorrez egindakoa bait

dirudi. Hotz eta zorrotza, zalapartarik gabeko gizon edukatua. Guztiz politikoa izan zitekeen gobernuan jokatzen duen papera, baina gestio esparru zabal eta garrantzitsua bereganatu du. *Obras son amores...* Eta oinarri horretatik botatzen ditu, buelta askorik eman gabe, gobernuaren gustokoak ez direnak. *Lo cortés no quita lo valiente...* Fernando Buesak politiko iraunkorren traza dauka, ez baita

munizioa altxafuegotan gastatzen duen horietakoa, ez eta, norbaitek halakorik esan duen arren, edozertarako balio duen komodina.

Santxok Kixoteari praktikotasun apur bat emango balio, eta zaldunak morroiari soberan zeukan estiloa pasatu, Fernando Buesaren antzekoren bat osatuko genuke. Hori ona ala txarra den, geroak esango du, Buesa pragmatiko estilotsu iragarten zaion geroaldi luzeak.